

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko uztailaren 25a

\*

## Margolarien uda Baztanen

■ Margolariena da uda Baztango bailaran. Uda-ko hilabeteak ailegatuta, urtero bezala, etxeko atek zabaldu edo galerietara eraman dituzte koadroak Baztango pintoreek, beren azken lanak erakusteko. Bailarara ailegatzaren diren bisitariak, beraz, arte eskaintza zabala aurkitzen dute Baztango herrietan, eta, margolariak azpimarratu dutenez, ongi aprobetxatzen dute. Elizondon, adibidez, bi pintura erakusketa daude ikusgai egunotan, eta laster gehiago izanen dira. Uztailaren 18tik Ana Mari Marinen Bergarenea etxeko atek dira zabalik elizondoarraren lanak ikusi ahal izateko, eta 19tik, berriz, Tomas Sobrinok Jaime Urrutia kaleko 23. zenbakian erakusten ditu bereak. Bihar, halaber, Jesus Montes pintoreak Zigan udako bizileku duen Karakotxean inauguratuko du beste erakusketa bat. ■



## Metropoli forala

FELIPE RIUS



Mundu guztian barrena ibilia zen, kontinente guztiak ezagutzen zituen eta arraza guztietako adiskideak izan zituen bere bizitzan zehar. Urtero opari harrigarriak iristen zitzaizkion etxera era berak jende gehienak izenak ahoskatu ere ezin izanaren lituzkeen herri batzuetara bidaltzen zituen eskutitzak eta paketeak. Bere etxea etnografia museo bat zen, irudiz, argazkiz, liburuz eta apainduraz betea. Burua ere oroitzapenez betea zuen, urrutitik zetozen oroitzapen zaharrez betea: lagunak, emakumeak, gerrak, arriskua, putetxeak, untzirik gabeko portuak, ekaitz beldurgarriak, hiri erraldoiak, mendi barkartiak, gosea, ume baten heriotza, jendez gainezka zebiltzan trenak, saien hegaldi zirkularrak, giza haragiz egingoak suteak, azken orduko taberna ilunak, desertuko egunsentiak, eguzkiak argitutako gauerdia, ekialde urrutiko geltokietako usainak, sekula bukatzen ez diren lautadak, kalashnikov

## Bidaiaria

bat nekez eraman zezaketen gazte-  
txoak, iraultza askoren himnoak, lu-  
xuzko hotelak eta pentsiorik nazkaga-  
rrienak, gorrotoa baino adierazten ez  
zuten aurpegiak, derbitxeen dantza  
amaigabeak, afrikar batzuen harrota-  
suna turismoa masan iritsi baino lehe-  
nago, hondamendi naturalak eta gizo-  
nak sorturikoak, eskale baten duinta-  
suna... Alabaina, gauza guztien gaine-  
tik mugak goizaldean pasatzean izan-  
dako sentsazioak eta muga haietako  
batean, inorena ez omen den lur pus-  
kan ikusitako emakume gaztea eta  
umea zituen gogoan, nola hurbildu zen  
haiengana lagundu nahian eta polizia  
batek, metrailera eskuan, bertan uzte-  
ko eskatu zion ilegalak zirela edo an-  
tzeko zerbait zioen bitartean. Aspal-  
dian gertatu zen, bere mundua dese-  
gin baino askoz ere lehenago, gaiso-  
tasunak jota betirako aulki gurpildun  
batean eseri aurretik, bere adiskideak  
bizirik zeudenean, aulki gurpildunean

eguzkirako betaurrekoak jarrita behe-  
rapenetan ilarak osatzen zituzten nes-  
ka gazteen bularrak eta hankak ikuste-  
ra joan beharrik gabe emakumeek  
maite zutenean. Azken finean, pentsa-  
tu zuen, dena alferrik zen, bere oroitzap-  
en guztiak, egun batean metropoli  
foraleko airea itotzen hasi zenean ihes  
egin zuenetik bizitutako guztia alferrik  
zen, dena liburuetan kontatua zegoen,  
argazkietan gordeta. Dena, muga ba-  
tean ikusitako emakumearen eta umea-  
ren begiak izan ezik. Jaberik ez zuen lur  
puska hartan, foko batzuen argipean  
eserita zeuden emakumearen eta  
umearen begiek justifikatu egiten zuten  
bere bizitza guztia.

Biharamunean egunero etxera joaten  
zitzaion gizarte laguntzaileak hilik eta  
irrifar batekin aurkitu zuen zaharra. Or-  
denadorean Internet konektaturik ze-  
goen eta mahai gainean Hirugarren  
Munduko milaka emakumeren erretra-  
tuak. X



KONTZERTUAK

**Olazti:** Los Dinosaurios taldeak kontzertua eskainiko du bihar, gaueko 23:00etatik aurrera.

**Tafalla:** Sobrinus taldeak Gabalzteka aretoan joko du bihar, arratsaldeko 20:00etan.

ERAKUSKETAK

**Elizondo:** Domingo Etxandiren omenezko erakusketa ikusgai dago Arizkunenea Kultur Etxean, astelehenera arte. Asteburuan goizez eta arratsaldez egonen da zabalik.

**Zangoza:** Pilar Compains artistaren zeramika erakusketa dago, Kultur Etxean, abuztuaren 12ra bitartean.

**Lizarra:** 'Picassotik gaur egunera arte' erakusketa ikusgai dago Gustavo Maeztu museoa.

**Iruñea:** Inge Morath argazkilariren Sanferminei buruzko lanak ikusgai dira igandera bitartean, Zapateria 40 aretoan.

ANTZERKIA

**Bakedano:** Teatro bajo la arena antzerki konpainiak 'El mundo subterráneo de Alicia' lana taularatuko du gaur pilotalekuan, gaueko 21:00etan.

**El Busto:** TEN-Pinpilipauxa taldeak 'Por los caminos de nunca jamás' antzeztuko du bihar, gaueko 21:00etan, herriko plazan.

**Izaba:** Scaramouche-Calambur antzerki taldeak 'Para gracias... las vuestras' antzezlan taularatuko du gaur, arratsaldeko 19:00etan. Igandean, berriz, Casedan aurkeztuko du lan bera, gaueko 22:00etatik aurrera.

ZINEMA

**Erro:** Herriz Herri zikloaren barruan, 'Misión imposible' filmea emango dute gaur herriko plazan, gaueko 21:20etatik aurrera.

**Zangoza:** Datorren asteazkenean, hilak 30, 'Space Jam' filmea emango dute Kultur Etxeko lorategian, gaueko 22:00etatik aurrera.

**Irurtzun:** Udako Zinema zikloaren barruan, 'Matilda' filmea ikusi ahal izanen dute herritarrek datorren asteazkenean, hilak 30, Foruen plazan gaueko 22:00etan.

LEHIAKETAK

**Lodosa:** Herriko XVI. Ipuin Lehiaketa eta XVI. Angel Martinez Baigorri Olerki Lehiaketa antolatuko dituzte. Irailaren 30ean amaituko da ipuin lehiaketan parte hartzeko lanak aurkezteko epea, eta abuztuaren 30ean, berriz, olerki lehiaketakoa.

**Iruñea:** Nafarroako Antzerki Eskolak Umeei Zuzendutako Antzerki Testu Lehiaketa antolatuko du. Seigarren aldía da aurten. Abuztuaren 1ean amaituko da.

Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Bidenabarko lanak bi balio du

Leherok argia ikusi orduko litekeena da indarkeriak jotako edo eragindako bertze kasuren bat gertatu izana, ez baitirudi akitu denik Ortega Lararen bahiketaren akaberaren ondotik abiarazitako bortizkeria uholde uhertua. Oraingo, behintzat, azken heriotza Juan Carlos Hernando preso bizkaitarrarena izan da, indarrean dagoen legeriaren arabera, maiatzaren hasmentatik karrikan behar zuena. Horra sakabanaketaren bertze ondorio bat.

Bizkitartean, sua ederki zirikatzen ari dira batzuk eta bertzeak, eta bi aldeetan arrunt gaizki ikusita daude sua apaldu nahian ari direnak. Zuri ala beltz, gainera ala azpiko, hementxo ala hango. Ez omen da bertze tarterik edo aterabiderik.

Ermuko gaztearen hilketak, bertzaile, Nafarroan ere ohi ez bezala inarrosi ditu bazterrak. Giro horretaz baliatuta HB zokoratze ahaleginetan dabilta erakundeetan. Artemein Parlamentuan entzundakoak entzunda, UPNk eta PSNk bururaino eraman nahi dute HBren isolamendua; bertze eta zakarrago erranik, Ezker Abertzalea baztertu eta zapaldu nahi dute gizartean, eta agindua plazaratua dago. Dena dela, Legebiltzarreko bilkuran nabardurak eta gehiago ere suma daitezke batetik Sanzek eta Lopez Mazuelasek, eta bertzetik Allik, Tabernak eta Ziaurizkek errandakoen artean, itunkideen arteko iritzimolde ezberdinen erakusgarri. Konparazio batera, CDNko buruak ez zuen bere egin

Madrilgo manifestazioan zabalduetako mendeku oihua, heldu haiei eta jo. Sozialisten bozeramaileak, ordea, esaldi horren silaba bakoitza nabarmenduz bukatu zuen hitzaldia. Makurbidean dabilta Sanz, Mazuelas, Kordobillako egunkaria, kazetari andana, eta Antzizar, nola ez, bide horrek elkarren kontrako giroa baizik ez baitu ekarriko, ukabildakaren aroa gizartera. Bidenabarrean, euskalgintzaren munduak zartakoa hartzen baldin badu, ba anitez ere hobe, bidenabarko lanak bi balio omen du eta.

HBk, bere aldetik, buru gainera etorri zaionaz kezkatu, dei egin die herrialdeko giza-talde aurrerakoiei, bai eta euskaltzaleei ere, gogoeta egin dezaten. Alabaina, sektore asko bat zetozen presoen Euskal Herritarzaren eskaerarekin, gaur egun auskalo, eta, hausnarketa hori egiterakoan berehala agertzen da eskuak lotuta zitueta, belaunikarazia, burua erdi makurtuta, garondan bi tiro botata ETAK hil duen 29 urteko gaztearen irudia, eta halako hilketamolde lazgarrien oroitzen tristeak 36garren urteko ezponda eta erripetara garamatza. Horrexek eta gisa horretako ekintzek uxatzen dute jendea, hankazgoratzen presoen gainera adostasuna, puskatzen batasuna, harrotzen euskaltasunaren aurkako jokabidea. Alde horretatik, uste izatekoa da HBk gogoeta egiteko gonbitea luzatua izanen diola ETARI, ahapeka baldin bada ere. Bidenabarrean erakunde armatuaren aurka euskal gizartean gertatutako mugimenduen berri jakinarazi baldin badio, ba askoz ere hobe.



Miguel Sanz lehendakaria Nafarroako Legebiltzarrean, UPNko hainbat parlamentariorekin. JOXE LACALLE

asteko pertsonaiak



Dejan Markovic Osasunako jokalaria

Dejan Markovic futbolari jugoslaviarra hiru denboraldirako kontratua sinatu du Osasunarekin. Jokalari berria asteazken arratsaldean aurkeztu zuen talde nafarrak, eta Osasunako erdi-punta berriak lanari ekiteko gogoaz dagoela azpimarratu zuen. Markovic Logroñes taldetik dator, eta Osasunako zuzendaritza aspaldi zebilen haren atzetik. Azkenean, aste honetan bertan amaitu dira negoziazioak Errioxako taldearekin eta erdi-punta jugoslaviarra 30 milioi pezetaren truke Iruñera etorri da (1,2 milioi libera). Markovicen kontratua eteteko klausula 800 milioi pezetakoa da (32 milioi libera). 24 urte ditu eta 1,81 metroko altuera, eta goleatzaila ez bada ere, oso erraz iritsi ohi da areara.



Fernando Arretxe Pilotaria

Fernando Arretxe pilotari nafarrak omenaldia jasoko du gaur Luzalde jaioterrian. Joan den larunbatean egin behar zioten omenaldia, baina pilotariaren eritasunagatik atzeratu egin zen. Fernando Arretxek Asegarcerekin duen arazoak, bestalde, konpondu gabe jarraitzen du. Enpresa pilotariarekin hizketan ari da baina kontratua sinatu arte Arretxek ez duela jokatu erran du Asegarcerekin. Arretxek eskaera bereziak egin zizkion Asegarcerekin kontratua sinatzeko. Bere kalitateagatik diru kopuru handiagoa merezi duela uste du Luzaldeko pilotariak. Gainera, lau urterako sinatu nahi du. Esakera horretan ez du arazorik ikusten Asegarcerekin, baina diru kontuetan ez dago ados.

ahaztu gabe!



EUSKAL DANTZAK

Tafalla: Nafarroa Oinez-ek antolatuta, Donostiako Eskola dantza taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du bihar, gaueko 22:30etatik aurrera, herriko zezen plazan. Eskola ez da ohiko dantza taldea. Euskal dantzak dira bere ikuskizunaren oinarri, baina musika eta soinua erabiltzen ditu ere bai taldeko kideek osatutako koreografiak aurkezteko. Euskal Herriko herri askotan ezagunak dira jada bihar Tafallan ikusi ahal izanen diren talde donostiarraren dantzak. Eskola, gainera, euskal dantzen inguruan egindako ikerketa lanagatik da ezaguna. Euskal Herriko dantza taldeen artean garrantzitsuenetakotzat jotzen da. Eskola dantza taldearen emanaldia ikusteko sarrerak 500 pezeta balioko du helduentzat, eta haurrentzat, berriz, 300. Sarrera aurretik eskuratu nahi duenarentzat, Tafallan Zubia musikadendan eta Nafarroa Oinez-en bulegoan egonen dira salgai, eta Iruñean, berriz, Xalbador liburutegian. Bihar, zezen plazan bertan erosi ahal izanen dira ikuskizuna hasi aurretik.

adi!

Euskalerría Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, Zokobetailu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FM 107,7n eta 103,8n

Ostiralero Txirristi-Murrusti haurrentzako saioa 12.30etan.



## Zangoza

## Ekitaldi ugari udako hilabeteetan

Abuztuaren 9an kontzertua eskainiko dute Oskorri eta Kukubiltxo taldeek herrian

**U**rtero legez, udako hilabeteak ailegatuta, kultur ekitaldiak areagotu egin dira aurten ere Zangozan. Udalak prestatuta, ekitaldi ugari izanen dira herrian datozen hilabeteetan, mota askotakoak, gainera. Gaur hasi eta abuztuaren bukaerara arte, adibidez, Dantza eta Musika Folklorikoaren Topaketak egingen dituzte Zangozan. Abuztuaren erdialdean, halaber, Nafarroako Jaialdiak ailegatu dira Zangozara.

Erredakzioa / Iruñea

DENEN GUSTUKO ekitaldiak izanen dira udako hilabeteetan Zangozan, eskaintza oso zabala baita. Musika, dantza edo erakusketak ezezik, tailerrak, hitzaldiak eta bestak izanen dira ere protagonista. Gaur, adibidez, Dantza eta Musika Folklorikoaren Topaketak hasiko dira Zangozan. Abuztuaren 30era arte luzatuko da eta talde hauek parte hartuko dute: Altsasuko Ifnauteriak, Oñatiko Dantzariak, Berastegiko Dantzak eta Mikel Deuna Dantzariak.

Artisau feriek ere izanen dute lekuri udako egitarauaren barruan. Gaur hasi eta datorren hiru ostiraletan ospatuko dituzte, Carmengo Txokoan. Kultur Etxeko lorategian, berriz, asteazkeno, zinema izanen da protagonista, gaueko 20:00etatik aurrera. Egunero pelikula bat baino gehiago botako dute. Ostiraleroko, halaber, Erdi Aroko afariak egiten dituzte Zangozan.

## Bera

## Alkaiagako auzoan gaur eta bihar izango dira jaiak

Musika eta pilota partiduak Santiagoetan

Jon Abril/Bera

SANTIAGO egunaren inguruan izaten dira bestak Alkaiagako auzoan. Goizeko 11:00etan egingo den mezarekint hasiko dira bestak. Auzoan besta eguna den arren, laneguna da berez, eta arratsaldera arte ez da ekitzirik izanen. 6:00etan Berako trikitilariak aterako dira auzoan barrera giroa alaitzera, eta tenore berean haurrentzat jokoak izango dira auzoko goiko aldean. Arratsaldeko 8:00etan, urtero bezala, Gure Txokoa-ko dantzarien emanaldia izanen da. Abuztuaren 1ean Berako beste-tako jaialdia egingen dute, eta hura prestatzeko balioko du. Gauerdian Kristina eta Amaia-

rekin dantzaldia izanen da auzoko kaskoan.

Bihar, larunbata, arratsaldean izanen dira ekitza guztiak. 7:00etan industrialdearen ondoan egin den pilotaleku berrian pilota partidu interesgarri bat jokatu da. Bi auzotarrek, Inazio eta Xabier Errandonea pilotari profesionalek, Apeztegia eta Goñiren aurka jokatu dute, aurrez aurre. Ondoren, auzokoan afaria izanen da, 9:00etan. Arrats partean musika ugari izanen da: 11:00etan Berako trikitilariekin dantzaldia izanen da, eta 12:30etan, rock jaialdian Berako taldeek parte hartuko dute. Auzoko bizilagunek antolatzen dituzte bestak, aspaldiko ohiturari jarraituz. X



Oskorri, Kukubiltxoren laguntzaz, kontzertua eskainiko du abuztuaren 9an.

Aurtengo afariak abian dira jada. Gaurkoa eta abuztuaren 8koa Donejakue Bidearen omenez egingen dituzte, musika eta antzerkiaren laguntzaz, ohikoa denez.

Nafarroako Jaialdiei dagokienez, iaz bezala, Atlantikoko Musika atalaren barruan antolatutako ekitaldiak hartuko ditu Zangozak. Aurten, Portugal, Brasil eta Kanariar Irltako doinuak entzun ahal izanen dituzte herritarrek, abuztuaren 15, 16 eta 17an.

Abuztuaren 9an, berriz, Oskorri izanen da Zangozan, Kukubiltxo taldearekin batera kontzertua eskaintzeko. Eta hil bereko 30an, beste motatako musika

entzuteko aukera izanen da herrian, Nora abesbatzarena, hain zuzen ere. San Nicolas komentuan kontzertua eskainiko du.

**Erakusketak eta tailerrak** • Mota askotako erakusketak ikusi ahal izanen dira, bestalde, Zangozan datozen hilabeteetan. Margo eta argazki erakusketak ezezik, adibidez, irailaren 6an enkajegileen lana ikusteko aukera izanen dute, ehoziri lanaren topaketa egingen baitute Zangozan.

Bestalde, haurrentzako plastika tailerra antolatu dute. Igerilekuan egingen dute, abuztuaren 5etik 29ra. 4tik 8ra, berriz, buz-

tinaren eta kemarikaren inguruko ikastaroa egin ahal izanen dute helduek. Hitzaldiek ere izanen dute lekuri udako ekitaldien artean. Abuztuaren hasierarekin batera, hain zuzen ere, bi hitzaldi sorta izanen dira, Zangozako toki ezberdinei buruz lehenengoa, eta keramika garaikidearen inguruko bigarrrena.

Udako egunak denek aprobe txatu nahi izan dituzte, eta herriko baratzeazainek, adibidez, San Romanen besta ospatuko dute abuztuaren 9an. Baina hori ez da udako jai egun bakarra izanen, irailaren 11tik 17ra San Sebastian bestak ospatuko baituzte herritar guztiak. X

## Altsasu

## Herriko gida kaleratu du Udalak doan banatzeko

1994. urtean argitaratutakoaren jarraipena da

Erredakzioa / Iruñea

ALTSASUKO UDALAK herriko gida informatiboa kaleratu du herritarren artean dohainik banatzeko. Udaleko arduradunek gidaren aurkezpenaz azaldu zuten, herriko irudia hobetzea du helburu gidak. Asmoa, dena den, ez da berria, 1994. urtean jada kaleratu zuten gidaren jarraipen gaurkotua baita egunotan kaleratu dutena.

Gida bera ezezik, intereseko telefonoen zerrenda eta herriko mapa jasoko dute Altsasuko biztanleek. Mapa horretan, hain zuzen, erakunde ofizialak, osasun zentroak, ikastetxeak eta bestelako eraikinak non dauden zehazten da. Udalak gidaren

3.000 ale argitaratu ditu herrian banatzeko, eta beste 800 herrira hurbilduko diren bisitarientzat gorde dituzte.

Altsasuko gida informatiboa, euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu du Udalak, eta herritarrentzat interegarri eta baliogarri diren datuekin batera —Altsasuko enpresen, hotelen, denden eta garraiobideen zerrenda eta abar—, herriko eta inguruko argazkiak jaso ditu, bai eta herriari buruzko hainbat datu historiko ere. Argazkiei dagokienez, Urbasako sei argazki hartzen ditu gidako azalak, Altsasuko zinegotzi M<sup>a</sup> Carmen Otaegik aurkezpenaz azaldu legez, «Urbasako ingurunea gure egin nahi baitugu». X

## Astiz

## Herriko jaiak gaur, bihar eta etzi ospatuko dituzte

■ Bertso saioa izanen da gaur gauerdian, Joxe Agirre eta Xabier Zeberiorekin

Erredakzioa / Iruñea

ASTIZKO biztanleek herriko jaiak ospatuko dituzte gaur, bihar eta etzi. Arratsaldeko 20:00etan botako dute gaur besten hasiera iragarriko duen txupinazoa. Ondoren, gaueko 22:00etan, herri afaria egingen dute, eta gauerdian, berriz, bertsolariak ariko dira, Joxe Agirre eta Xabier Zeberio hain zuzen.

Ondoren, goizaldeko 01:00etan, dantzaldia hasiko da Modestoren musikarekin, eta 02:00etan, kontzertua Laukote taldearekin. Kontzertua, hala ere, ez da eguneko azken ekitaldia izanen, goizaldeko 05:00etan txokolate jatea egingen baitute herritarrek. Sabela bete eta dantzan jarraitzeko aukera parregabea.

Biharko eguneko egitarauari 09:00etako dianek emanen diote hasiera, eta ondoren, eguerdian, erronda egingen dute etxez-etxe herriko gazteek. Arratsalde partean, 17:00ak aldera, mus txapelketa izanen da, eta 22:00etan, berriz, dantzaldia Modestorekin.

Goizaldeko 01:00etan, berriz, Kristina eta Amaiak hartuko dute lekukoa eta haiek ariko dira giroa alaitzen, taldeko gainontzeko kideekin batera.

Igandekoa besten azken eguna izanen da. Goizeko 09:00etan dianak izanen dira, eta 11:00etan, berriz, meza nagusia. Lekunberriko abesbatzak parte hartuko du. Eguerdian, bestalde, herri kirolari eskainiko diote tartea, eta, besteak beste, sokatira frogatik aukera izanen dute herritarrek.

Herriko lagunak, gainera, pilota desafio ikusgarria egingen dute. 50 urteko lagun artean, Jose Mari Begiristain eta Jose Miguel Eguzkiza izanen dira aurrez aurre, eta 35 urteko lagun artean, berriz, Pello Iriartek eta Josetxo Juanenak jokatu dute elkarren kontra.

Arratsalde partean, halaber, 17:30etan, mus txapelketaren finalerdi eta finala jokatuko dituzte. Ordubete beranduago, herriko txikiak izanen dute ongi pasatzeko aukera, haurrentzako jokoak prestatu baititu Udalak. Arratsaldeko 20:00etan, berriz, dantzaldia izanen da Modestorekin. Gauerdian, berriz, aurtengo beste agur errateko denbora ailegatu da. Besten agur ofiziala gauerdian izanen bada ere, 03:00ak arte, gutxienez, izanen dute herritarrek parranda egiteko aukera, ordura arte luzatuko baita dantzaldia. X



Baztango margolarien lanak  
ikusgai

# Uztaileko erakusketak

*Uda ailegatuta, azken lanak erakusgai jarri dituzte Marin, Sobrino eta Montesek, besteak beste*

**B**isitari anitz ezezik, bertako margolarien erakusketak ekarri ditu udak Baztango bailarara. Hilaren 18an, Ana Mari Marinek Elizondoko Bergarenea bere etxeko atea zabaltu zituen, urtero bezala, bere azken lanak erakusteko; 19tik aitzinera, berriz, Tomas Sobrinoren koadroak ikusgai dira herriko Jaime Urrutia kaleko 23. zenbakian. Ez dira bakarrik, dena den, bihar Jesus Montes margolaria gehituko baitzaie. Zigako Zururre auzoan udako bizileku duen Karakotxean azke lanekin erakusketa zabalduko du Gaspar Montes Iturrioz pintorearen semeak, arratsaldeko zortzietan.

Edurne Elizondo / Elizondo-Ziga

PINTURAREN munduari dagokionez, oparoak eta biziak dira udako hilabeteak Baztanen. Marin, Sobrino eta Montesek erakusketak hiru adibide garbi dira, baina badira gehiago. Baztango hainbat margolariengan bere eragina eta arrastoa utzi duen Jose Mari Apezteak, adibidez, Erratzuko bere etxeko atea urtero irekitzen ditu uda ailegatzeko denean.

Aurten, gainera, Elias Garralda pintore lesakarraren erakusketa hartuko du Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxeak abuztuan. Iaz, jada, Bidasoako paisajistak gaur izeneko taldeko erakusketan parte hartu zuen Berako Kultur Etxean Garraldak. Elizondokoa, ordea, Bartzelonan bizi den margolari nafarraren lanak bakarrik osatuko dute, bere Baztango paisaiek, alegia.

Baztandarrek, edonola ere, hasiera eman diote jada margolarien udari, eta guztien artean lehenengoetarikoa izan da Ana Mari Marin elizondokoa. Elizondoko plazatik hurbil dago Marinen Bergarenea etxea. Plazatik, hain zuzen, erraz ikus daiteke elizondokaren erakusketaren berri ematen duen kartela. Arratsaldeko 18:00etatik gaueko 21:00ak arte dago zabalik. Ordutegi horretatik kanpo hurbildu ginen gu Bergarenea, eta, beraz, bakarrik ikusteko aukera izan genuen, margolaria bera lagun, astelehenean.

Arratsaldeko lauretan, udako arratsalde eguzkitsu baten lasaitasunean murgilduta harriatu genuen Ana Mari Marin, telebistaren aurrean. Pantaila txiki irudiak, ordea, elkar agurtu bezain pronto utzi zituen bazter, eta maiatzeko Londresen



Bergarenea Elizondoko bere etxean erakusketa zabaldu du Ana Mari Marinek.

MANU MUJICA

Cervantes Institutuaren eskutik egin zuen erakusketaren berri emanez eman zion hasiera solasaldiari.

Londresera eramandako zenbait koadro eta han bertan egingandako beste hainbat ikus daitezke, hain zuzen, Bergarenea etxeko erakusketan. Baztango paisaiak dira nagusi, Oxford eta Londre-


sekoekin batera, baina Donibane-Lohizune, Hondarribia edo Hendaiaiko itsaso eta untxiak protagonista dituzten koadroak ere badira. Ia ehun akuarela eta olio-pintura denetara.

Udako erakusketak ez dira gauza berria Ana Mari Marinentzat, 30 urte baino gehiago baitarama halakoak eginen. Ez

etxean, ordea, Baztanen Jesus Montes izan baita horretan aitzindari. Marinek gogoratu duenez, Udaletxea erabiltzen zuten hasieran Baztango margolarien beren lanak erakusteko. Elizondokoa, dena den, Bergareneko gelak nahiago ditu: «Oso polita da. Erakusketak, gainera, etxean lagunak biltzeko aukera eskain-

tzen dit, eta hori asko gustatzen zait». Egunotan ikusgai den erakusketaren inugurazioa zela-eta, adibidez, Jorge Oteiza hurbildu zen Bergarenera. Arratsalde hartako edariak zerbitzatzeko erabilitako kopak gorde gabe ziren oraindik astelehenean.

Erakusketa osatzen duten koadroak ikusi bitartean, loreak



Azken urteko koadroak zintzilikatu ditu Tomas Sobrinok Jaime Urrutia kaleko aretoan.

MANU MUJICA



Baztango margolarien lanak  
ikusgai

eta zuhaitzak margotzea gustuko duela erran zigun Ana Mari Marinek. «Landaretza, oro har, kiribilak egiteko aukera ematen daldako. Margolari barroko samarra naiz ni, oso bitalista, eta horregatik gustatzen zait pintzelarekin kiribilak egitea». Hori da Ana Mari Marinen koadroen marka. Baztango margolari guztiak ez direla berdinak nabarmentzen du, dena den, Marinek: «eta hobe horrela, denok berdin margotuko bagenu, oso aspergarria izanen litzateke eta». Paisaia komunetik abiatuta, bakoitzak bere bidea egiten du. Marinen, bere etxean da egunotan ikusgai.

## Tomas Sobrinoren zuhaitz eta basoak

• Tomas Sobrino margolari elizondoarrak ere aspaldi ekin zion pinturaren bideari. Egunotan, Jaime Urrutia kaleko 23. zenbakian ematen ditu udako arratsaldeak Sobrinok. 60tik gora koadro zintzilikatu ditu han —olio-pinturak eta akuarelak— joan den larunbatean ireki zuen eta abuztuaren 31ra bitartean ikusgai izanen den erakusketa osatzeko. Azken urtean egindako koadroak dira guztiak. Hori dela eta, azken hilabeteetan margolariak jorratu duen bidea zein den argi erakusten dute. Sobrinok berak esan zigun, gainera: «Zuhaitzak, basoak».

Kolorezko orbanak erabiltzen ditu horiek irudikatzen Tomas Sobrinok. «Herri batean abstraktuagoa den pintura ulertuko ez dutela dirudien arren, hemen oso harrera ona izan dute koadroek. Jendeari asko gustatzen zaizkio», azpimarratu du pintoreak.

Bere koadroen gaia, hala ere, bera da beti, Baztango paisaiak, alegia. Eta paisaia horiek margotzeko, udaberria eta udazkena ditu gustuko —margolari gehienek bezala— Tomas Sobrinok. 20 urte luze darama Baztango bazterrei so, baina oraindik ez da nekatu. Aitortu zigunez, gainera, margotzera irtetek lagunekin egoteko, hitz egiteko eta eztabaidatzeko aukera eskaintzen dio, «eta hori ere garrantzitsua da». Irteera horietan, Jose Mari Apeztexea eta Ana Mari Marin ditu askotan lagun.

Baztango margolarien arteko harremana, hain zuzen, Tomas Sobrinok asko estimatzen duen gauza da, bai eta behin baino gehiagotan beste zenbait lekutan faltan sumatu duena ere. Nafarroako Gobernuak Veneziako margo biurtekoa ikustera joateko antolatu izan dituen bidaiak aipatu zizkigun elizondoarrak adibide gisa: «Autobus bat margolariz beteta, zoragarria!», pentsatzen nuen nik. Elkarrekin hitz egiteko eta eztabaidatzeko aukera izanen genuela uste nuen, gauak hoteleko gelan hitz egiten eta hitz egiten emanen genituela, baina ez zen horrelakorik gertatu. Iruñeko artisten artean harreman gutxi dagoela konturatu nintzen».

Ikuslearen eta koadroaren arteko harremanari buruz ere mintzatu zen Tomas Sobrino: «Koadroa ez da ulertu behar, baizik eta hari begira gelditu eta espetu,



Jesus Montes margolaria Zigako Zuraurre auzoan duen Karakotxea etxean.

MANU MUJICA

## Pintura ikastaroa abuztuan

BAZTANGO margolarien erakusketekin batera, pintura tailerra ekartzen du udak bailarara. Aurtengo hirugarren ekitaldia izanen da, eta aurreko bietan bezala, Tomas Sobrino eta Jose Mari Apeztexea margolari baztandarrak izanen dira Baztango Udako Kultur Sailak antolatzen duen ikastaroko arduradunak. Hainbat astez, bailarako herriak zeharkatuko dituzte, margotzeko txokorik politenen bila. Eta Baztanen, egia erran, ez dira gutxi.

Udako ikastaroa, dena den, ez da pinturaren irakaskuntzaren inguruan Baztanen abian jartzen den ekimen bakarra, urte osoan baitago bailaran

margotzen ikasteko aukera. Tomas Sobrinok, hain zuzen, bost eta hamar urte bitarteko neska-mutleirak irakasten die, baina helduek ere badute ikasteko aukera.

Sobrinok azpimarratu legez, ordea, urtean zehar gelan egiterik ez dutena egiteko aukera eskaintzen die udak. Aurtengo ikastaroa abuztuaren 4an hasi eta 29ra bitartean izanen da. Denetara, hala ere, hamabi eguneko tailerra izanen da, astean hiru egunetan egiten baitute, goizez. Parte hartu nahi duenak hil honen 29tik abuztuaren 1era arte du izena emateko denbora, Elizondoko Arizkunen Kultur Etxean bertan, edo 58 12 79 telefo-

nora deituz. Parte hartu ahal izateko, betiere, pinturari buruzko oinarriko ezagupenak izatea beharrezkoa da, «tailerra nahiko motza denez ezin baita denbora galdu. Pinturaren munduan, finean, hamabi egun ez dira deus», azaldu du Tomas Sobrino margolari elizondoarrak.

Tailerrean parte hartzeko 5.000 pezetako matrikula ordaindu behar du ikasle bakoitzak. Beharrezko materiala eramatea, halaber, haien ardura da. Aurtengo ikastaroan 30 lagunentzako lekua izanen da.

Baztango Paisaiak izeneko margo tailerraren helburua pintura kalera ateratzea dela azpima-

rratu du Tomas Sobrinok: «Baztango herrietan barrera mugitzen gara, gelako bodegoiak eta erreproduzioak alde batera utziz. Tailerrean, prozesu osoa euren esku hartzeko aukera izaten dute ikasleek. Hasteko, zer margotu nahi duten erabaki behar dute, txokoa aukeratu, hura zehaztu eta margotu. Ikasleentzat oso aberasgarria izaten da».

Aurreko ekitaldietan lortutakoa kontuan hartuta, Tomas Sobrino pozik da emaitzekin, eta nabarmendu duenez, Baztango jendeak ez ezik, udan bailarara hurbiltzen diren zenbait bisitarik ere parte hartu du. Ezin erran daiteke, beraz,

udako Baztango Paisaiak margo tailerrak jendearen interesa piztu ez duenik. Irakasleak, hori dela eta, oso kontent dira, eta Sobrinok dioenez gogoz ekiten diote urtero lanari.

Tailerren amaieran ikasle lanak ikustea, gainera, atsegina da irakasleentzat, Sobrinok erran duenez. «Oso gauza interesgarriak ikusten dira», gaineratu du. Sobrinok, hain zuzen, ikasle bakoitzak bere bidea jorratu behar duela nabarmendu du: «Bakoitzak bere estilo propioa aurkitu behar du». Sobrino eta Apeztexearen eskutik Baztango paisaiak margotu nahi dituenak, beraz, badaki zer egin behar duen.

entzun zer erraten duen». Koadroei begira, hain zuzen, Baztango bazterrak izenburuean Sobrinok egindako lamina bilduma aurkitu genuen. «Baztango bailara osatzen duten herri guztiak daude, bakoitzarekin marrazki bat egin dut. Agian horregatik, asko gustatu zaie herritarrei», erran zigun, pozik.

## Jesus Montes, zaldietatik tabernetara

• Elizondotik hurbil, Zigako Zuraurre auzoan udako bizileku duen Karakotxean aurkitu genuen Jesus Montes margolari jaiotzez irundarra. «Etxearen benetako izena, ordea, Etxeberria da», argitu zigun Montesez segituan. Etxe handi eta ikusgarria, edonola ere. Eta etxe horren behealdean jarri du Jesus

Montesez bere erakusketa, azken urteetako 90 koadro inguruk osatua. Bihar zabalduko du, arratsaldeko zortzietan, eta irailaren 3ra arte egonen da ikusgai.

Bi erakusketek paisaia bera irudikatzen badute ere, Ana Mari Marinen eta Tomas Sobrinoren koadroak erabat ezberdinak dira. Are gehiago Jesus Montesenak, 20 urte margotu ondoren bazter utzi baitzituen Baztango paisaiak. Biharko erakusketan bakarren bat agertzen bada ere, bestelako gaiak dira nagusi. Oso bestelakoak, gainera.

Andaluzian emandako urteen eragina, adibidez, oso nabaria da Montesen koadroetan. Bai eta beste zenbait lekutara egindako bidaiena ere, toki ezberdinetako paisaiak jaso baititu pintoreak

bere koadroetan. Andaluziari dagokionez, ijitoen koadroak dira Montesez handik ekarritako gehienak. Halaber, Montesen ibilbidean beti errepikatu diren beste zenbait gai agertzen da ere, hala nola gizakia, txoriak, natura hilak eta zaldiak. Zaldiak, hain zuzen, edonon ikus daitezke, toki guztietan. Oso txikitatik omen dator kio zaldiekiko zaletasuna. «Bi urte nituenean aita marratzen ikusi nuen eta zaldi bat egiteko eskatu nion», gogoratu zuen Jesus Montesez. Orduz geroztik, hamaika zaldi margolariaren ibilbidean.

Uda honetarako Montesez prestatu duen erakusketa, dena den, badu berrikuntzarik gaiari dagokionez, tabernetako koadroak zintzilikatu baititu mar-

golariak etxeko paretetan. «Gai berria da. Orain, gainera, formatu handian egiten ditut Madrilen erakusteko». Casa Paco edo La taberna del fotógrafo dira tabernetako koadroetako bi. Koloreari dagokionez, lur tonuak ezezik, kolore biziagoak, fuertegoak erabili ditu azken aldian Montesez, ihauterietako girokoak, berak dioenez.

Karakotxean bakarrik utzi genuen Jesus Montes, hango getetan barna itzultitua egin eta gero. Karakotxea, ordea, laster izanen da jendez gainezka, urtero bisitari ugari hurbiltzen baita Montesen etxera haren koadroak ikustera. Txikitari eskutik etxean bizitako giroa gogoratzeke aukera izanen du berriro. X



Xanti Begiristain

## Egoera zaila

■ Argi dago bizitzen ari garen egoera soziopolitiko ez dela inorentzat eroso eta gustagarria, batez ere azken asteotan.

Giro hau ez da batere berria, zaharra bai ordea. Duela zenbait hamarkadaz geroztik, gutxienez, ari gara pairatzen zorritzarrekoko gora-behera hau.

Mila aldiz esana dago gatazka honen sorburua dela Euskal Herrian dagoen konpondu gabeko auzi politiko bat, eta orain ere, berriz errepikatu beharko dugu gauza bera, zeren eta behin eta berriz sinestarazi nahi baitigute Madrilen, Gasteiz, Iruñea eta Parisko gobernuetatik, besteak beste, hemen Euskal Herrian 180.000 pertsona edo gehiago txoratuta gaudela, hiltzaile hutsak garelako eta beste hamarka maltzurkeria.

Ez ba, behin baino gehiagotan azaldu beharko dugu argi eta garbi ez gaudela eroturik.

nahi. Hogeita hamar bat urte daramatzate politziaren bitarteko konponbidea saiatzeko, eta ez dute lortzen beren helburua. ETAk ere ez du erdiesten bere xedea. Hortaz, egoera honetan jarrai genezake beste hogeita hamar urtez inor ez bada mugitzen.

Nork mugitu beharko lukeen lehendabizi? Niretzat argi dago, gobernuek eta estatuek (Euskal Herri ingurukoek eta barrukoek) mantendu nahi badute demokratikoak direla, beraien hasi beharko luketela beraien legeak betetzen eta errespetatzen, adibidez sakabana-ketak, torturak, tratu txarrak eta abar bukatzen, zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoak eta sendabiderik ez dutenak kalera-tzen eta giza eskubideak beti errespetatzen. Hori hasteko, eta jarraitzeko elkarrizketa, negoziatio eta hitzarmenen bideari ekin. Hortxe dute oraindik ETA erakundeak proposaturiko



Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzardeko hainbat ordezkari ETAk Ortega Lara bahituta eduki zuten zuloa ikusten izan ziren.

ANDER GILLENENA

Gure herri honek arazo politiko serio bat dauka Frantzia eta Espainiako estatuekin, eta adimenik eskasena ere ulertzen du gatazka eta auzi politikoei eman behar zaizkiela aterabide politikoak. Hori ulertzen ez duen politikaria bai politikari txarra!, edota ulertu nahi ez duena bai politikari gaizto eta ezgauza!

Beraz, esan bezala, arazo politikoak neurri politikoekin konpondu beharko dira; hortaz, argi eta garbi dago okerreko bidea dela HB eta Ezker Abertzalea orokorrean isolatzea, zeren eta nola edo non ikusi da arazoak, gatazka eta istiluak konpontzen hitz egin eta negoziatu gabe? Inon ere ez. Eta zer gertatzen da, ba, hemen espezimen berezi eta arraroren bat garelako edo zer? Ez, garbi dago ezetz, eta nik uste dut Euskal Herriaren autodeterminazioaren eta lurraldetasunaren aurka daudeneke ere badakitela, baina oraindik ez dute amorerik eman

Alternatiba Demokratikoa behar bezala erantzun gabe, bestaldetik Euskal Herriko gizar-teak eman dion laguntza aintzakotzat harturik.

Hona hemen zer ikusi eta ikusten ari naizen, azken aste hauetan Euskal Herrian eta inguruetan: sofrimendu gehiegi dagoela, heriotza guztiak ez direla berdinak (batzuei ematen zale propaganda ona, besteek txarra), komunikabide gehienek manipulatu dutela informazioa ikaragarri beren interes politikoaren alde, bilkura eta manifestazio batzuk bultzatzen eta sustatzen diren bitartean beste batzuk debekatzen dira eta ematen zaie egurra.

Laburbilduz, batzuk onak dira eta besteok gaiztoak; batzuk demokratikoak, besteok bortitzak; batzuk santuak, besteok deabruak... Hori ez da bidea. *Etsaiarekin* hitz egin behar da auziak konpontzeko, eta auziek dirauten bitartean gainera. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Bécas olerkari lapurtarraren oroipenetan

■ Garaziko Jean Barbierrek 1926.eko otsailaren San Baionako apezgaitegian ogutzi hitzaldian Charles Bécas izan zuen mintzagai, edo zehatzago esatearren, kantagai, alta, gehien batez Iparraldeko herri txikietan ibilitako apez baten bizitzak askorako emanen ez bailuan, Bécasek berak sorturiko bertsoen bitartez eman baitzigun haren gaineko berria. Eta ez legoke guztiz soberan Bécasen bertsoak ahoan harturik geu ere kantetan hasiko bagina, izan ere bihar beteko baitira Ainhoako Ionioarenean sortu zelako 150. urteurrena. Bihoa beraz NAFARKARIAKO zoko baztertu honetatik geure omenaldi umil baina benetakoa.

Apezbidean ainhoarrak Larresoroko apezgaitegian ikasi zuen, eta beharrek ikasketak higatu ostean, bere lehendabiziko helmuga Baigorri izan zuen: «Ordenatu ta laster fama zen ethorri / Enetzat hautatua zutela Baigorri / Bihotza altxaturik ene jainkoari / Harek nahi lekurat gan nintzan bikari». Halaz ere, Auzako gerizapean bi urte eskas eman zituenean, Miarrizera aldatu zioten mezalekua, antza, gure gizona gehiegi uzkuritu ez zuena: «Menditik jausi nintzen itsaso hegira / Artzainak han utzirik, kaskoien erdira / Nehor arbulatzetik jainkoak ni begira / Jende prestuta onak orotan badira». Zortzi urtez kostaldeko hirian eman ondorean Ahetzera eraman zuten 1883.ean: «Gure bizia daila goiti ta behelti / Enetzat seurik hola gertatu da beti / Baxina(ba)rrin bi urte Miarrizten zortzi / Nahi nuke Ahetzen hil eta ehortzi». Bidartera buruzko bidea korritu behar izanen zuen oraino, azkena ordea: «Zahartzerat zaukaten enetzat Bidarte / Hemen ere apezak badik begitarte / Biloak zuri bainan gogoz bethi gazte / Hola irauen diat agian hil arte».

Ibilbide literarioaren partitza Ahetzen kokatu ohi dute gure Bécasez arduratu diren urri hortexek. Nolanahi ere, geure uste petralean, Bécas darion bertso-sen sakona ez da goizetik arratsaldera itsasten den dohaia, eta nabari da betidaniko gauza izan duela bertsoan ihardukitzea. Oixtlan Jon Kortazarrek karrikaratu *Euskal literaturaren historia txikia* behar beharrezkoa genuen esku liburuan —batik bat Onaindiaren eta Villasanteren bildumak agortu zirenetik— Bécasen lana Larresoroko apezgaitegiaren inguruan aitzineko mendean loraturiko idazkintzarekin kokatzen digu, behialakoan Piarres Charrittonek Larresoroko eskola deituko zuenarekin hots, bestaldetik hagitz eskola funts gabekoa iduritzen ez zaiguna, ahalbidetu zuten izen ezagunei erreparatzen badiegu bederen, esaterako, Duhalde, Goihetxe, Hiribarren, Lapeire, Harriet, Kamusarri, Zaldubi, Elissanburu, Gorostazu...

Bécasek ondu bertsoetarik geureganatu direnak ez dira gutxi, gehiago ziratekeen arren, oro jorragai bestetik, denetaz eta denetarik. Erlijioa gaitzat dutenen artean *Lourdesko Andre Denari zuzendu Ama eskualdunak egun zure oinetan daude, Munduan ez da sosegurik*, edota Flément apezaren eskariz eta Charles Bordesen musikarekin Ainhoako ama Birjinaren omenez 1901.ean ondu *Eskualdunak jodedunak* aipa litezke. Ameriketara artzai egondako Manex Etxamendi bertsoegile nahiz auzapez estereozubiarrari *Manex artzaina* bertsoak eskeini zizkion Larresoroko apezgaitegia itxiarazi zenean bertan zihar dutenentzako 100 libera eman baitzuten: «Kalifornia zolan Manex duzu bizi / Han ere mota nasal omen da ihizi / Makilarekin Manex nork dezake izi / Hartaz debrua bera nahi luke hezi».

Alabaina, sortu zituen lanik gorenenak bere bertso umoretsuak dituzkegu. Hauetariko bat 1897.ean Donibane Lohitzunen burutu aste kulturalarako —hantxe irakurririko hitzaldiekin La tradition au Pays Basque bilduma ederra atera zen— aurkeztu *Santsin* olerki saritua genuke: «Igande ilhuntez batez / Etxe alde zohala / Erroz gora erori zen / Santsin zabal zabala / Izarrak nihon ez ditu / Ikusi han bezala / Ilhargia ferekatuz / Gan zen gan berehala. Etxera ta andrearri / Erraten omen dio / Eroriko hunek ez din / Samurtzea ballo / Erran no Santsinen gaiza / Noiz gosta zain kario? / Bethi badine ostatuan / Merke botikario. Horditzar gizon higuina / Urrun hakit bixtatik / Oxala ez bahintz jalgi / Putzuaren zolatik / Zer sofriarazten dukan / Jainko jaunak bazakik / Ai nola bada gate / Hau sartu nikan lephotik».

Ezpal berekoa, eta bere olerkirik politenen artean, *Martin Koxeren*A genuke: «Nafartarra naiz eta deitzen Martin Koxe / Arno gozoa maite omen dut soberaxe / Debru frantsesek naute trufatzen hulaxe / Il était Martin Koxe, gai, gai, gai, Dimanché. Iruritan sortua Maiaztean naski / Hortakotz jendeak jurtzen nau gaizki / Janizak dautanean egiten ausiki / Asetzeko ez ditut hamar talo naski. Zorrietako menta dudan errementa / Dena den hiretako huna testamenta / Pipa toxa, zahato, mando eta manta / Zorrenzat igorriko zerutik errenta».

Azkenik, eta Bécasen lana hobekiago ezagutu nahi duenak aukera izan dezan, *Gure Herria* aldizkariak Bécasek izkiriatu zenbait neurritz berri bazekarzikigun mende honen bigarren hamarkadan: *Udako egun batez, Buruz-buru, Eskualdun kantaria, Arranoa eta otsoa* —1921.ean—, *Artzain mendian* eta *Mirentxu* —1924.ean—, guziak Harritxabal izengoitiaz sinaturik. Charles Bécas 1911.eko abuztuan joan zitzaigun Bidarten, eta la seguru gaude bere gorpua sorterriko hilerrian pausatuta zutenean ahoan bertso hau zerabilela: «Ene bizia holaxe doa kantu eginez bakean / Jainko Jaunari galde bakhar hau kantatuz ardurenean / Ene egunak alegereki bururatzen direnean / Onets dezazu kantuz sar nadin zure zeru ederrean». ■



# Plazaolako txirrindulariak

Partzuergo Turistikoaren babespean talde afizionatu berria sortu du Luis Vicente Otinek

**L**uis Vicente Otin txirrindulari profesional ohiaren eskutik, talde afizionatu berria dago Nafarroan, apirilaz geroztik: Plazaolako Partzuergo Turistikoa, alegia. Otinek orain dela bi urte hasitako proiektuaren gauzatzea da Plazaola, eta 19 eta 21 urte bitarteko hamazazpi mutilek osatzen dute.

Eduze Elizondo / Iruñea


LUIS VICENTE OTINENTZAT bizikleta dena da. Hamabi urte zituenetik txirrindularitzaren munduan murgilduta bizi izan da, eta horrela segitzeko asmo garbia dauka. Horregatik, bi urtetako lanaren ondoren ametsa egia bilakatu dela ikusteak asko pozten du. Taldeari buruz hitz egiten duenean berehala igartzen zaio harro dagoela, oso harro. «Nik sortutako proiektua da, eta azkenean abian jarri dela ikustea zoragarria da», azaldu du txirrindulari ohiak.

Otinek 1989. urtean utzi zuen txirrindularitza profesionala, eta 1990ean afizionatuen maila, urtebete egon ondoren. Txirrindularitzarekin betidanik izan duen harreman estua, ordea, ez du bazter utzi. «Urtero, adibidez, Berako Miguel Indurain klasiakoan parte hartzen dut, bai eta beste hainbat lasterketatan ere», aipatzen du txirrindulari ohiak.

Hainbat txirrindulari taldeetan ibilia da, halaber, bigarren zuzendari gisa. Baina Otinek beste zerbait nahi zuen, bere neurriko taldea, berak hasieratik bukararaino egindako proiektua, alegia. Hori lortzeko orain dela bi urte hasi zen lanean. Bakarrik ez zuela lortuko argi zuen, eta horregatik, Plazaolako Partzuergo Turistikoaren laguntza bilatu zuen, bai eta aurkitu ere.

«Partzuergo turistikoak modan ziren eta pentsatu nuen nire proiektuan parte hartu nahi izanen zutela, agian», gogoratu du Luis Vicente Otinek. Eta hala izan zen. Plazaolako gerente Jose Mari Aierdirekin harremanetan jarri eta berehala jaso zuen partzuergo horren balaizta. Plazaola, hala ere, ez da Otinen taldea babesten duen erakunde bakarra, beste zenbait etxe eta talderen laguntza ere jaso baitu txirrindulariak. Bertizko Partzuergo Turistikoarekin ere harremanetan jarri da Otin. «Proiektua asko interesatu zaie baina oraingoz ezin dute parte hartu», jakinarazi digu taldeko zuzendariak.

Taldearentzat babesleak bilatu eta aurkitu ondoren, errepidean eta lehiatzen ari dira jada Plazaola taldeko txirrindulariak. Taldea hamazazpi mutilek osatzen dute. Horietako hamalau 19 urtekoak dira, beraz gazte mailatik atera berriak; gainontzeko hirurak, berriz, 21ekoak. Txirrindularien jatorriari dagokionez, denetarik dagoela erran daiteke: Bortzirietakoak, Iruñe-



Plazaolako Partzuergo Turistikoa txirrindulari taldea, aurkezpenaren egunean.

ARANTXA IPARRA

## Luis Vicente Otin:

«Afizionatu talde hau nik sortutako proiektua da, eta azkenean abian jarri dela ikustea zoragarria da»

«Gazte mailatik atera ondoren, bidea zaila da gazte gehienentzat, are gehiago talderik ez badute. Horregatik sortu dugu Plazaola, zenbait gazteri, behintzat, aukera bat eskaintzeko»

«Badira afizio handia duten gazteak, baina gutxieneko laguntza ematen ez badiegu berehala erretzen dira»

koak, Tuterakoak, Larriangoak, Barañaingoak... bai eta Mexikoko bat ere.

«Gazte mailatik atera ondoren,

bidea zaila da gazte gehienentzat, are gehiago talderik ez badute. Horregatik sortu dugu Plazaola, zenbait gazteri, behintzat, auke-

ra bat eskaintzeko», azpimarratu du taldeko zuzendari Otinek. «Badira afizio handia duten gazteak, baina gutxieneko laguntza ematen ez badiegu, berehala erretzen dira», gaineratu du.

«Giro paregabea dugu» • Plazaola taldea osatzen duten mutil guztiak ikasleak dira; beraz, ekaineko azterketak bukatu arte, bizikleta ezezki, liburuak ere izan dituzte esku artean. Uztailarekin batera, ordea, bizikletari eskaini diote denbora guztia. Plazaola taldeko kamisetarekin, gainera, lehenengo lasterketak korritu dituzte jada. Berriki Logroñon izan dira, eta gaur bertan Astigarragara joan dira, erlojupeko igoeran parte hartzera. Igandean,

berriz, Elizondon jaiak direla eta antolatutako lasterketan parte hartuko du Plazaolak. Ez dira horiek bakarrak izanen, gainera, datozen hilabeteetan 20 bat lasterketatan izanen baita Plazaola. Otinek, dena den, argi utzi nahi izan du taldearen asmoa ez dela txirrindulariak dauden lasterketa guztiak eramatea, «hain ikasketak oso garrantzitsuak baitira, eta zaildu behar dituzte».

«Giro paregabea dugu», aipatu du Luis Vicente Otinek taldeko mutilekin duen harremanari buruz galdetzean. Horren adibide, Logroñoko lasterketatik bueltan gertatutakoa kontatu digu Plazaolako zuzendariak: «Vianan gelditu ginen, taldeko mutil baten familiaren upelategian. Eta sekulako ezustekoa eman zigun, bazkari goxoa prestatua baitzuen, guri aurretik deus esan gabe. Egia esan, oso ongi portatzen dira denak, ez dugu inolako arazorik izan».

Otin ilusioz beteta dago Plazaola taldea lanean ikusita. Horrek ez du esan nahi, ordea, esku artean beste proiekturik ez duenik, aipatu digunez beste talde bat sortzeko asmotan baitabil txirrindulari ohiak. Azken finean, txirrindularitzaren mundua da Otinek gehien maite duena, eta ez du utzi nahi. Profesional moduan eman dituen urteak gogoratzean ere, esaldi bakar batekin laburbiltzen du esperientzia horrek ekarri diona: «Gehien maite dudana egiteko aukera izan dute».

## «Oso ongi portatzen ari dira»

PLAZAOLAKO Partzuergo Turistikoa txirrindulari taldea Luis Vicente Otinen asmo gauzatua bada ere, beste jende asko dago Leitzako txirrindulari ohiaren ondoan, haren proiektua laguntzen. Taldeko zuzendaritza, adibidez, Otin zuzendariarekin batera, Gerardo Telletxea lesakarrak —Sicesal taldeko zuzendari izandakoa—, Jesus

San Emeterio donostiarrak eta Lourdes Ceballos leitzarrak osatzen dute.

Taldearen aurkezpen ofizialean, halaber, jende ezagun askok parte hartu zuen. Guztien artean, dena den, Miguel Indurain Atarrabiako txirrindulari ohiak jaso zuen txalo gehien, Leitzako Basakabi hotelean egindako ekitaldian. Han izan ziren, hala-

ber, Iñaki Perurena eta Migeltxo Saralegi harrijasotzaileak. Ladis Galarza pilotaria, eta, noski, Plazaolako Partzuergo Turistikoko gerente Jose Mari Aierdi.

Plazaolako Partzuergoak, hain zuzen, hasieratik begi onez ikusi zuen Otinen proiektua, eta partzuergoa osatzen duten herri eta talde ezberdinen artean ezta-

baidatu ondoren, berehala txirrindulari ohiari eskatutako laguntza ematea erabaki zuten Plazaolako arduradunek.

Plazaola taldeko zuzendari Luis Vicente Otinek, hain zuzen ere, bere proiektuarekin bat egin duten lagun guztien lana eskertu nahi izan du, eta, halaber, «denak oso ongi portatzen» ari direla azpimarratu.



\* ◆ Juan Mari Arzelus ◆ Musikari profesionala

# «Musikan dena da zilegi»

**U** da herri handi eta txikiak festen musikarekin batera hasi ohi da Euskal Herri osoan, eta musikaren gaupasa amaitu arteraino ez dio udazkenari lekua uzten. Juan Migel Arzelus gaupasa horretan eztarria uzten duten musikari horietakoa da, gitarrari eutsi eta azken izerdi tantaraino eszenatoki gainean uzten dutenetakoa.

Mikel Reparaz / Arbizu

ARBIZUN bizi da Arzelus, teklatu bat eta zenbait gitarra elektriko inguratuta. Eta Arbizun bertan harrapatu genuen, Pirinioetatik itzuli berria. Hamasei urte bete zituenetik musika munduan sarturik egon da, «gora-beherak gora-behera».

■ **Musikak zakur bat bezala bizitzeko adina baino ez omen du ematen zenbaitendako, beste batzuk biziki zaila ikusten dute duintasunez bizi ahal izatea. Musikari frankorentzako, utopia bat da.**

Trikimailu taldea 1995ko udazkenean sortu genueraino musika alde batera utzia neukan, Jesse James Band desagertuaz geroztik. Hala ere, ez nion inoiz ikasteari utzi, eta orain trantsizio garai batean nago. Musika hartu dut ogibidezat, eta ez diot horren erraz utziko bide horri. Trantsizio garai hori gainditzea da zailena, hilabete edota urteetan gastuak baino ez baitauzkazu, baina behin hasiz gero zailena egina dago. Galde egiezu bestenez Trabukokoei, Akelarrekoei...

■ **Duintasunaz haratago joanda, zein dira arrakasta lortzeko baldintzak?**

Musikan, zoritxarrez, ez du arteak agintzen, ekonomiak baizik. Entzulearen behar musikalak alde zuzenetik antolatua daude, eta jendeak marketin musikalak eskaintzen diona eskatzen du finen. Artista ikaragarria izan zaitezke, baina zure etorkizuna erabakiko duen enpresari horrek ez badu hala ikusten, ez zara aurrera aterako.

■ **Beatles-ak orijinalak al ziren?**

Orijinaltasuna zaila da aurkitzen. Gure esparruan, plazarik plaza ibiltzen garen berbena tal-


deen eremuan, kantu ezagunen moldaketak egiten dira, eta alde horretatik ez dago berrikuntzarako leku handirik. Halaber, zure estilo propioa hortxe gelditzen da isladaturik, Su ta Garren punteo bat goitik behera aldatzen duzunean, edota jota klasiko baten akordeetan bariazioak sartzen dituzunean.

■ **Plazarik plaza ibili ohi zara, Trikimailurekin, udan zehar. Hala ere, urtean beste ideia anitz izanen dituzula pentsatzekoa da. Nondik nora doaz zure proiektu eta paranoiak, bere gitarren bakardadean?**

Proiektuak badauzkat, baina oso epe luzerako, oraingo. Grabatu izan ditut Arbizun, etxean dauzkadan aparatuekin, zenbait maketa. Alde instrumentalari eskaintzen diot arreta osoa grabazio horietan, gitarra klasikoari bereziki. Tarregas eta horrelakoak dauzkat eredu, baina jazz ukitua nabaria da nire konposizio guztietan.

■ **Alde instrumentala aipatu duzu, izan ere gitarra jolea baitzara, nahiz eta baxua eta teklatuak ere jotzen dituzun. Hala ere, Trikimailun eztarria urratu ere urratzen duzu. Kantautore bezala aditu ahal izanen dugu Arzelus?**

Merkatuaren joerekin behinik behin bat letorke. Kantatzearena ez daukat oraindik oso argi. Noizbait bakarka ibiliko banaiz eta zerbait kontatu behar badut, ez dut gitarrak soilik egiten. Baina ez dut oraindik neure burua horretarako prest ikusten. Dena den, kantautore bakarti bat ez naiz izanen, beti talde bat izanen baitut inguruan. Espainiako Estatuan kristoren bombardaketa ari gara jasaten Ella Baila Sola, Rosana, Pedro Guerra eta antze-



Juan Migel Arzelus, Trikimailu taldeko abeslaria, Arbizun.  
OSCAR MONTERO

koekin. Ez dut esan nahi txarrak direnik ez deus, baina kantautore direlako soilik erosten ditu jendeak haien diskoak, eta horrek izorratzen nau. Neronek berberaren munduan jarraitzeko asmoa daukat, zenbait urtetan berderen. Kontatu behar duzuna gitarrarekin bakarrik ez kontatzeko asmoa azaldu duzu.

■ **Juanjo Olasagarre idazlea laguna duzu, eta poesiarekiko lotura bat badaukazu. Musikan urturik edan behar al da literatura?**

Nik musikaren aldetik hitz egiten dut, hori baita nire esparrua. Musika eta literatura loturik joan beharko lirakeke. Hala izan beharko luke. Ordea, Euskal Herrian ekoizten den musikarekin

egoera literarioa, oro har, penagarria da. Nik Nirvanaren *Smells like teen spirit* kantua lehen aldiz aditu nuenean segituan joan nintzen diskoak erostera. Bonbazo bat zen, potentea, eta nik hori bilatzen nuen. Aldiz, ez nuen Kurt Cobainek esaten zuenaz deus ulertzen. Hori bera gertatzen da gure musikarekin, eta horregatik hitzak ez dira batere zaintzen, ez dio axola. Musika minimo bat lantzen da, eta norbera fisikoki guapoa bada, hobe.

■ **Sakanan oso indar handia hartu du azken boladan tekno mugimenduak, Euskal Herriko beste leku anitzetan bezala. Zer balio dauka makina batek egindako musikak zu bezalako instrumentista batentzako?**

Arbizun jaio zen Juan Migel, duela 33 urte. Sakanaldean 'Arzelus' deitzen du mundu guztiak, 16 urterekin musika munduan sartu zenetik. Izenik gabeko talde batean

hasi zen, bi neskatokoz batera. Urko eta Laboaren garaiak ziren, eta berarekin ere borroka hari heldu zitoten.

Arzelusek gehien landu duena berbena izan da. Etxarri-Aranazko Adar taldean urte franko eman zituen, Jesse James Band taldea sortu arteraino. Bertan rhythm and blues musika lantzen zuten, eta Arzelusek baxua astintzen zuen. Orain, Trikimailu taldeko abeslari eta gitarraria jolea da.

Trikimailu Ordizian (Gipuzkoa) ariko da gaur gauean, eta bihar Bakaikuko plazan entzun ahal izanen dugu, gauerditik aitzinera. Atzo, berriz, Otsagabian izan ziren, eta uda honetan herri askotan aurkitu ahal izanen ditugu Arzelus eta bere taldekoak.

Makinak gizakiaren tokia betetzera etorri dira, eta beteko dute. Hala ere, makinak menperatzen ditugun bitartean, ez dago arazorik, eta musikan denak baliotu, dena da zilegi. Zoritxarrez, mugimendu makineroak musikaz gain badauzka gazteen artean beste zeinu batzuk. Denok dakigu tekno musika droga jakin batzuen efektuen pean entzutea ezberdina dela. Asko harritu nau, gainera, mobida horretan sartu den jendea ikusteak. Giro alternatiboetan mugitzen zen jendea da, hardcore, grunge eta tendentzia horiek guztiak bereganatu zituen jendea da... Hala ere, pentsatzen dut antzera ikusiko gintuztela gu 30 urtetik gorakoek AC/DC entzuten hasi ginenean. x

«Asko harritu nau Sakanaldean sortu den 'tekno' mugimenduak, eta bertan zer jende dabilen ikusteak»

## BEKARIO!

Zaldi Eroa

